

Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

Gaiaren azalpena:

2026ko urtarrilaren 28an dekretu baten bidez erabaki zen 2026ko martxoaren 28an ospatuko den Erramu Zapatuko Ferian talo postuak jartzeko espazioa adjudikatzeko deialdia egitea eta deialdi hori arautzeko oinarriak onartzea.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta,

ERABAKI DUT

Talo-postua jartzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea:

- **Onartuak**

<u>Eskatzailea</u>
Aitor Aurrekoetxea Lopez
Ataungo Talogileak elkarte
Lezamakoetxe txosna
Mieltxo taloak 329k
Maria Mitxelena
Simon Perez Gracia (Arabako taloak)

- **Baztertuak:** Inor ez.

Erabakiaren aurkako errekursoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsa edo administrazioarekiko auzi errekurtsa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsa aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena):

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.*
- Non: Alkatetzara jo behar da.*

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, Alkateak agindu eta izenpetzen du eta nik, Idazkariak, ziurtatzen dut, Bergaran, dekretuaren datan.

Alkatea
Gorka Artola Alberdi

Idazkaria
Xabin Juaristi Arrieta

